



Arartekoaren 10/2011 gomendio orokorra, abenduaren 14koa Abiadura murriztaileak hiri eta hiriarteko bideetan.

1. Sarrera

Erakunde honek, urteetan, zenbait kexa jaso ditu autonomia erkidegoko errepideetan eta hiri bideetan gehiegizko abiadurak eragiten dituen segurtasun arazoei buruz. Herritarrek arazo horretarako irtenbideak eskatu dituzte eta, beste neurri batzuen artean, herri-bideetan abiadura murriztaileak jartzeko eskatu dute, oinezkoen segurtasuna hobetzeko.

Horrela, eskaera horri erantzuteko, herri eta hiri gehienetan, dagozkion bide seinaleak ez ezik, ibilgailuen abiadura murrizteko eta trafiko istripuak saihesteko berariazko gailuak instalatu dira, besteak beste: oinezkoentzako pasabide garaiak edo nabarmenduak, asto bizkarreko murriztaileak (sakanguneak), europar kuxinak, etab. Hala ere, gailu horiek izan beharreko ezaugarriak finkatzeko arau teknikorik ezean, administrazio bakoitzak bere irizkideen arabera jarri ditu bereak, eta sistema batzuen eta besteen artean dauden aldeak handiak dira, baita bideen ezaugarriak oso antzekoak izan litezkeen kasuetan ere.

Bestalde, pertsona batzuk kaltetuta sentitu dira oztopo horiek direla-eta, eta jarritako gailu murriztaileen ezaugarri teknikoekin duten desadostasuna adierazi dute; izan ere, uste dute arazo argi bat konpontzeko, gehiegizko abiadura, alegia, beste arazo batzuk sortu direla, besteak beste: kalteak gidarien osasunarentzat, kalteak ibilgailuetan, zarata gehiago, irisgarritasunaren legedia ez betetzea, mugikortasun zailtasun handiagoak minusbaliotasuna dutenentzat, etab.

Beraz, oso garrantzitsua litzateke egiaztatutako araudi teknikoa egotea. Araudiak gailu horiei eragin liezaieketen alderdi guztiak hartu behar lituzke aintzat, herri-bideko instalakuntzek benetan betetzeko ibilgailuen abiadura murrizteko helburua, exekuzio edo diseinu desegoki baten ondorioz, arrisku eta eragozpen bihurtu gabe bat dezaten. Izan ere, arrisku eta eragozpen horiek saihestu nahi dena baino kalte handiagoa bihurtzen dira, zenbait kolektiborentzat, behintzat.

Orain, gainera, nahastea eta eztabaida sortu dira, ea derrigorrez aplikatu beharreko arau teknikorik dagoen edo, aitzitik, administrazio bakoitzak instalakuntza horiek egokien deritzon moduan burutzeko askatasuna duen.

2. Galdetutako zenbait herri-administrazioek emandako argibideak

Aurreko gogoetei jarraituz, Arartekoak egokia iritzi zion ofizioz espediente bat zabaltzeari, informazioa biltzeko eta autonomia erkidegoko zenbait herri-administrazioekin haien jarduketa eta gaiari buruzko iritzia ezagutzeko. Horrela, gaiari buruzko argibideak eskatu zitzaizkien Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru



Aldundiei, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalei, eta Barakaldoko Udalari, prentsan agertutako kexengatik, eta, azkenik, EUDEL, euskal udalen elkarteari.

Aipatu erakunde guztiek erantzun zabala eman dute eta interes handiko ekarpenak egin dizkiote, gaiak sortzen dituen inguruabarrei eta arazoari buruzko gutxi gorabeherako ikuspegia izateko, egin genuen argibide eskaerari.

Arabako Foru Aldundiaren Herri-lan eta Garraio Sailak honako informazioa eman du:

- Ez dauka bere araudirik eta, beraz, irailaren 23ko 3053/2008 Agindua (FOM agindua)¹. aplikatzen dute.
- Instalatu beharreko gailu murriztailea hiriko zati/ibilbide bakoitza xehetasunez aztertuta erabakitzen da, eta erakunde eskatzaileari erabakiaren berri ematen zaio haren premiak/kezkak jasotzeko.
- Egindako hautuaren bidez erabiltzailearentzako informazioa indartu nahi da beti, bere abiadura bidearen egoerari egokitu diezaion, ahal den neurrian, bidean oztopo handia izan daitezkeen gailurik oldarkorrenak saihestuz.
- Erabiltzaileen informazioan sakondu behar da eta azpimarratu behar da trafikoari buruz eskumena duen agintariak zati horietan duen abiaduraren kontrola, bideko segurtasuna hobetzen laguntzeko.
- Zenbait kasutan, erreklamazioen bat jaso dute, soinu alertako zeharkako bandek sortzen duten zaratagatik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri-lan eta Garraio Sailak honako informazioa eman du:

Bere araudia dauka. [Ekainaren 22ko 88/2010 Foru Dekretuaren](#) bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide sareko ibilbideetan abiadura murriztaileak eta zeharkako bandak instalatzeko arau teknikoa eman dute (2010eko uztailaren 9ko 130. BAO).

- Dekretuaren helburua instalakuntza horien diseinu irizpideak zabaldu eta batzea, errepidearen erabiltzaile guztiak (ibilgailu arinak, astunak, gurpil bikoak, autobusak, oinezkoak) aintzat hartzea eta haiei guztiei kalteak saihestea da.
- Arau horiek Errepideen Foru Sarea osatzen duten errepideetako edozein ibilbidetan aplikatzen dira. Arau teknikoan xedatzen ez dituen kontuetan, besteak beste FOM aginduan xedatutakoa aplikatuko da.
- Aipatu Dekretuak urte biko epe iragankorra xedatzen du foru errepideetan dauden instalakuntza guztiak aupatu arauari egokitzeko.
- Arau hori emateko arrazoietako bat hura euren ordenantza bihurtu nahi duten toki erakundeak bateratu ahal izateko gogoa da.

¹ Sustapen Ministerioaren [irailaren 23ko 3053/2008 agindua](#), zeinen bidez Estatuko Errepide Sareko errepideetan abiadura murriztaileak eta alertako zeharkako bandak instalatzeko arau teknikoa onartzen baita (2008ko urriaren 29ko 261. BOE).



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Sailak honako informazioa eman digu:

- Ez dauka bere araudirik.
- FOM Agindua aplikatu ahal izateari dagokionez, azaldu dute ez dela oinarritzko legea, eta aginduak berak Estatuaren errepide sarera mugatzen duela bere aplikazio esparrua. Bestalde, erantsi du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [30/1992 Legeko](#) 21. artikulua arabera, agindu tekniko bat hierarkikoki mendekoak diren erakundeei zuzentzen zaiela.
- Euskadiko Errepide Plan Orokorra arautzen duen [maiatzaren 30eko 2/1989 Legeak](#) ez dauka xedapenik, baina bidea ematen du Planaren esparru orokorrean zein lurralde historiko bakoitzean behar diren arau teknikoak eta seinaleei buruzkoak garatu ahal izateko.
- Zebrabide garaiak burutzeko barne agindu bat daukate².
- Topografiari, azaleko drainatzeari eta inguruneari lotutako inguruabarrak kasuz kasu aldatzen dira eta, beraz, tokian tokiko errealitateari egokitu behar da.
- Kexa orokorrak jaso dira eragozpen edo deserosotasunagatik, baina adostasuna ere bai, oinezkoen segurtasuna hobetu delako.
- Gaia konplexua da eta gizarte interes argia dauka. Kontrajarriak diruditen interesak (gidariak eta oinezkoak) batu beharra sortzen da. Egiatan, ez lukete kontrajarriak izan behar, gidari oro oinezkoa ere badelako, eta nahikoa litzateke zirkulazio arauak zorrotz betetzea arriskua mailarik txikienera murrizteko.
- Agindu teknikoak komenigarriak dira eta oreka puntua bilatu behar dute instalakuntzen segurtasun eta eraginkortasun baldintzak, eta guztientzako gutxieneko erosotasun estandarrak bermatzeko.

Bilboko Udalak honako informazioa eman du:

- Bere araudia dauka eta honako ordenantza eman du: [“Abiadura-murriztaileen eta oinezkoen pasabide berrien ordenantza”](#)³
- Une batean, Sustapen Ministerioari galdetu zioten agindua hiri bideei aplikatu behar zitzairen, Zirkulazioaren Araudi Orokorreko 5.2 artikulua xedatutakoaren arabera.
- Sustapen Ministerioiko Errepideen Zuzendari Nagusiak honakoa adierazi zuen aplikazio esparruari buruz: *“Estatuaren Errepide Sarea osatzen duten errepide proiektuetara mugatzen da”. “Hala ere, esan behar da ezerk ez duela galarazten beste bide sareen esparruan aplikatzea, azpiegitura horien ardura duten administrazioen horrela xedatuz gero”.*

² Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepideen Zuzendari Nagusiaren azaroaren 12ko 3348-TC/2002 Ebazpena.

³ 2010eko uztailaren 13an onartua (2010eko urriaren 18ko BAO)



- Gida tekniko moduan (2005) Zirkulazio eta Garraio Arloak, zerikusi zuzenena dutenen adostasunarekin (anbulantzien gidariak, autobusak, suhiltzaileak eta taxilariak), egin zituen Gomendioak aipatu dituzte ordenantzaren aurrekari.
- Pasabide garai guztiak berrikusi eta araudi berrira egokitzen ez zirenak zuzendu dira.

Donostiako Udalak honako argibideak eman ditu:

- Ez dauka bere araudirik.
- Hiri zatietan aplikatzekoak ez badira ere, FOM Aginduaren jarraibideei jarraitu zaie, baina eskuragarri dagoen aurrekontua eta garraio publikoaren zirkulazioa ere aintzat hartzen dira.
- Egungo Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko ordenantza dagozkion jarraibideak jasotzeko aldatzea aztertzen ari dira.
- Balizko kexei dagokienez, adierazi dute auzokoek eta auzo elkarateek baiadura murriztaileak eskatu dituztela, zenbat eta altu eta oldarkorragoak hobeto.
- In situ egindako murriztaileak jartzeak arazoak dakartzkio garraio publikoari, autobusaren behealdea (flota osoak dauzka plataforma baxuak erabiltzaileen irisgarritasuna errazteko) edo indargetze sistema ukitzen dutelako. Hori dela-eta, bide horietan "berlindar kuxinak" deritzenak jartzen ahalegintzen dira.

Gasteizko Udalak honako argibideak eman ditu:

- Ez dauka bere araudirik, baina udal teknikariek egindako jarraibideak dauzkate, urteetan eginak eta hobetuak.
- Egiatzatu da erabilitako eraikuntza ereduaren xehetasunak FOM Aginduari egokitzen zaizkion, haren aplikazio esparrua Estatuaren errepideak izan arren.
- FOM Aginduaren gomendioak hiri bideen berezitasunei egokitu zaizkie, dauden ertzek bestelako garaiera izateak eragindako zailtasunengatik.
- Abiadura murriztaileak oinezkoak edo txirrindulariak errazago igarotzeko egiten direnez gero, ibi plataforma bera pasagune erabiltzen da, eta haren gainean dagozkion bide markak margotzen dira.
- Azpimarratu ditu espaloien ertzaren altuera txikia den kaleetan eta ertzaren altuera gehiegizkoa (12 cm-tik gora) denetan irisgarritasunaren araudia betetzeko dauden zailtasunak, oinezkoen ibilbideetan ez baitu onartzen irtenguneak egitea.

Bestalde, Barakaldoko Udalak honakoa jakinarazi du:

- Ez dauka bere araudirik. Uste du FOM Agindua udal titulartasuneko bideetan aplikatzea zalantzarria dela (Udal eta Probintzien Espainiar Federazioaren –FEMP- gomendioen arabera, besteak beste, hirigintzaren tipologiagatik).
- FOM Aginduaren alderdi batzuei kasu egiten die; besteak beste, elementu guztiak arau horretan xedatutakoak baino malda txikiagoekin egiten dira.





- Zenbait auzokoren keak jaso dituzte pasabide horiek jartzeagatik, baina baita haiek jartzeko eskaerak ere, erregulartasunez.

Bukatzeko, EUDEL Euskal Udalen Elkarrekin adierazi du ez daukala informazio edo agiri zehatzik galdetutako gaiari buruz.

Azken urteotan esku hartu dugun udalek emandako informazioa ere badaukagu eta oraintxe bertan kexa zehatzengatik irekitako espedienteak dauzkagu. Haien arabera, hiri bideetan jarritako abiadura murrizteko sistemak ez zaizkie egokitzen ez FOM Aginduari –errekamaziogileen ustez aplikatu beharrekoa da-, ez sektoreko beste araudiei ere (irisgarritasuna, zirkulazio kodea).

3. Galdetutako herri-administrazioek emandako argibideei buruz azpimarratu beharreko alderdi interesgarriak

Gure eskaerari erantzun dioten herri-administrazioek emandako argibideetatik, zenbait ondorio atera ditzakegu, laburpen gisa, gomendio orokor honen planteamendurako erreferentzia puntu izateko.

Administrazio horiek darabiltzaten arauketari edota jarraibideei dagokienez, esan behar da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak izan ezik, galdetutako herri-administrazio gehienek ez daukatela euren araudirik, baina urteetan euren jarraibide teknikoak edota aplikatzeko irizpideak garatu dituztela. FOM Agindua, indarrean sartu zenetik, erreferentziatzeko eredu izan da, herri-administrazioek ezarritako instalakuntzak Aginduak garatutako arau teknikoak egokitzen zaizkiela egiaztatzeke edo haiek zuzenean edo osagarri aplikatzeko.

Aplikazio esparruari dagokionez, administrazio bakoitzak bere irizpideak, jarraibideak edo arauak aplikatzen dizkio titularra den errepideei, baina azpimarratu behar da bateratzeko joera ikusten dela, arazo jakin batzuek eskatzen dituzten moldaketak kaltetu gabe. Horrela, azpimarratzekoa da udalek, hiri inguruneetatik (zeharkaleak) doazen foru errepideetan abiadura murriztaileen instalakuntzaren sustatzaileak diren aldetik, aplikatzen dituzten jarraibide teknikoak; horrek haiek norberaren bideetara egokitzeko erreferentzia eman eta izan behar du. Halaber, interesgarria da Bizkaiko arauaren xedapena, zeinek ahalbidetzen baitu euren ordenantza bihur lezaketen udalek araudia bateratu ahal izatea.

Bukatzeko, agerian geratu da gizartean gaiak sortzen duen interesa, oinezkoen eta errepideen beste erabiltzaileen (gidari partikularrak edo garraio publikokoak, etab.) interesak batu eta orekatu beharrez, hori dena zenbait ikuspuntutatik, hala nola:

- Zirkulazio arauetako eta batez ere ezarritako abiadura mugetikiko begirunean hezi beharra, trafikoko eskumena duen agintariak esku hartuta.





- Zenbait puntutan zirkulazio arauak ez betetzea orokorra izanda, oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna hobetzeko neurriak hartu beharra.
- Instalakuntzen segurtasun eta eraginkortasuneko baldintzak bermatzearen eta guztientzako gutxieneko erosotasun estandarrak ezartzearen arteko oreka puntua bilatzen duten jarraibide teknikoak ezartzea.
- Aplikagarria den gainerako sektoreko araudia aintzat hartzea, batez ere zirkulazio kodeari eta irisgarritasuna sustatzeari dagokienez.

4. Lege esparru orokorra eta haren aplikazioa

[Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak](#), zeinen bidez martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen artikuludun testua aplikatu eta garatzeko Zirkulazio Arautegi Orokorra (ZAO) onartu baitzen, honakoa xedatzen du:

“1. La realización de obras, instalaciones, colocación de contenedores, mobiliario urbano o cualquier otro elemento u objeto de forma permanente o provisional en las vías o terrenos objeto de aplicación de la legislación sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial necesitará la autorización previa de su titular y se regirán por lo dispuesto en la legislación de carreteras y en sus Reglamentos de desarrollo, y en las normas municipales...” (4. artikulua).

Bestalde, ZAOk, oztopo eta arriskuei buruz hitz egitean, honakoa xedatzen du:

*“1. Quienes hubieran creado sobre la vía algún **obstáculo o peligro** deberán hacerlo desaparecer lo antes posible, y adoptarán entre tanto las medidas necesarias para que pueda ser advertido por los demás usuarios y para que no se dificulte la circulación (artículo 10.3 del texto articulado).*

*2. No se considerarán obstáculos en la calzada **los resaltos** en los pasos para peatones y bandas transversales, siempre que cumplan la **regulación básica** establecida al efecto por el Ministerio de Fomento y se garantice la seguridad vial de los usuarios y, en particular, de los ciclistas.” (5. artikulua).*

Esparru horretan, Sustapen Ministerioaren irailaren 23ko 3053/2008 aginduak Estatuko Errepide Sareko errepideetan abiadura murriztaileak eta alertako zeharkako bandak instalatzeko arau teknikoa onartu zuen (2008ko urriaren 29ko 261. BOE).

Prentsako zenbait titularretan eta erakunde honetan izapidetu dugun kexaren batean islatu denez, FOM Agindu horren aplikazioa erabatekoa da irteenguneak



instalatzen dituzten bide guztietan, aipatu ZAOk 5.2 artikulua Sustapen Ministerioaren oinarritzko arauketara jotzen baitu, eta gaia garatzen duen beste lege xedapenik ez dagoelako.

Eskumen esparruaren ikuspegitik, adierazi da Agindua [Konstituzioko](#) 149.1.29 artikulua babespean eman dela, eta hark Estatuari ematen dio interes orokorreko herri lanei buruzko eskumena, baita errepideei buruzko Estatu araudia garatzeko ere. Bestalde, Estatuaren Errepide Sarea osatzen duten errepide proiektuei aplikatuko zaiela xedatzen du.

Sustapen Ministerioak berak uste du Aginduaren aplikazio eremua Estatuaren errepideei baino ez zaiela hedatzen, Bilboko Udalak egindako kontsultaren arabera⁴. Hala ere, Sustapen Ministerioak erantsi duenez, ezerk ez du galarazten beste bide sareen esparruan aplikatzea, azpiegitura horien ardura duten administrazioen horrela xedatuz gero.

Ikuspegi materialetik, galdetutako zenbait administrazioek adierazi duten bezala, arrazoitu liteke aipatu jarraibide teknikoek nolabaiteko egokitzapena behar dutela zenbait hiri bide kategoriari (hiriko garraio publikoa, kaleen eta espaloien antzinatasuna) aplikatzeko, euren berezitasunak baitauzkate.

Beraz, agertutako oharbideei buruzko lehenengo ondorioan, bideetako irtenguneak ez dira oztopoak, instalakuntzen erabiltzaileen eta txirrindularien bide segurtasuna bermatzen duten heinean. Zirkulazio bide mota guztietan instalakuntza horiek egiteko derrigorrez bete beharreko oinarritzko araurik ez dagoenez gero, herri-administrazio bakoitzak bere jarraibideak edo arauak garatu ahalko ditu, bere eskumeneko zirkulazio bideetan bakar-bakarrik.

Dena dela, euren araudia ez duten herri-administrazioek Estatuko ordenamenduak, hots, aipatu FOM Aginduak, garatutako arauen aplikazio osagarriaren bidez hutsune hori bete lezakete.

Norberaren araurik ezean horrela integratzea berariaz aurreikusi da, foru administrazioei dagokienez, haien lurralde esparruetan, Euskal Herriko Errepide Plan Orokorra arautzeko maiatzaren 30eko 2/1989 Legean; izan ere, 11. artikuluan honakoa xedatzen du:

“1.- Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusian jasotako teknikazko eta iragarketa-arauak, beharrezko erakidetasuna ziurtatzeko Euskal Herriko Autonomi Elkarteko administrazion jabetzapeko errepideetan indarrean jarriko diren eta derrigorrez bete beharreko arau guztiak izango dira.

...

⁴ Horrela jaso da Bilboko Udalaren abiadura murriztaileei eta oinezkoen pasabide berriei buruzko Ordenantzaren hitzaurrean.



3. Estatuko teknikazko eta iragarketa-arauak ordezeko mailakotzat hartuko dira.

Dena den, Erresumak emandako teknikazko eta iragarpen-arauak, Autonomi Estatuan eta Erresumak Euskal Herriari errepide-alorreko aginteak eskuratzeari buruzko abenduaren 30eko 2.769/80 Errege-Dekretuan agindutakoari dagokionez erabiliko dira.

4.- Atal honetako lehenengo idazatian agindutakoaren kaltetan gabe, Kondaira-Lurraldeetako ihardutze-sailek, beharrezkotzat jo ditzaten alderdietan, teknikazko eta iragarpen-arauak garatu ahal izango dituzte. Horiek onartu baino lehen, horretarako gai den Eusko Jaurlaritzako Sailak, saloak Egitamuan jasotakoekin bat datozenari buruzko txostena idatziz eman beharko du."

Beraz, Lurralde Historikoek eskumena daukate beharrezkotzat jotzen dituzten arau teknikoak eta seinaleei buruzkoak garatzeko, Errepide Plan Orokorrean (EPO) jasotakoak kaltetu gabe. Hala ere, arestiko 4 atalean adierazitako euren araudia garatu ez dutenean, FOM Aginduko arau teknikoak aplikagarri dituzte, legeak berariaz xedatzen duelako osagarriak direla, Planean sartutako errepideei dagokienez behintzat⁵.

Bukatzeko, gure aburuz, EPOko errepide sarean sartzan ez den esparru materialerako, norberaren ordenamenduan dauden hutsuneen aurrean eta ordenamendu juridiko aplikagarria ixteko klausula gisa, ezin da baztertu FOM Aginduaren aplikazio osagarria udal administrazioentzat eta are foru administrazioentzat. Ez dugu ahaztu Estatu zuzenbidearen aplikazio osagarri horrek zailtasunak sor liezazkiekeela toki erakundeei euren berezitasunak eta euren instalakuntzen ezaugarri tekniko bereziak arrazoitu ahal izateko, besteak beste, Gasteiz eta Donostiako Udalek emandako iritziengatik (alde zaharrak, hiriko garraio publikoa, etab.) eta Bilboko Udalaren Ordenantzak egiten duen arauketagatik egiaztatu dugunez.

Horren ondorioz, euren araurik ez duten eta beste administrazioek egindakoak bere egin ez dituzten administrazioei gerta lekieke, euren irizpidearen arabera eta kasuz kasu, instalakuntza horiek bidearen erabiltzaileentzat eta oinezkoentzat segurtasun baldintza egokiak dauzkatela argudiatu arren, administrazioaren jarraibide teknikoaren aplikazio osagarria eskatzea herritarrek.

Horrek guztiak segurtasun juridiko eza ekar lezake. Beraz, ondorioztatu behar dugu euren eskumeneko zirkulazio bideetan abiadura murriztaileak jarrita

⁵ Planari dagokion sarean Lurralde Historikoak edo Autonomia Erkidegoaren baitakoak ez diren administrazioen errepideei lotzeko errepide guztiak sartuko dira, trafikoaren garrantziaren arabera.



dauzkaten herri-administrazioek euren arauketa izan behar luketela instalakuntza horiek izan beharreko ezaugarri teknikoak garatzeko edo, hori ezean eta gutxienez, formalki egin behar luketela bere dauden arauketetako bat, Bizkaiko Foru Aldundiak bere lurralde esparruko udalentsat berariaz xedatzen duen bezala.

5 Eduki formala

Ikuspegi formaletik, euren arauketa duten administrazioek zenbait tresna juridikoren bidez bideratu dituzte. Hemen azpimarratu behar da, batez ere, haien edukiaren publizitatea eta bidearen erabiltzaileek haiek egiteko izandako parte hartzea.

Egiaztatu ahal izan dugunez, zenbait herri-administrazioek jarraibide teknikoak edo abiadura murriztaileak jartzeko lege arautzailea argitaratu dituzte, egoki iritzi diotelako, edo hura arautzeko erabilitako tresna juridikoak hala eskatzen zuelako. Edonola ere, uste dugu erabilitako tresna juridikoa zein ere den, publizitate egokia bermatu behar dela zuzenduta dagoen hartzaileek ezagut dezaten.

Zentzu horretan, arauketa hierarkikoki mendekoak diren erakundeei zuzendutako jarraibide teknikoaren bidez ezarri arren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legeko](#) 21.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokien aldizkari ofizialean argitaratu behar lirateke, artikulua horretako bigarren idatz-zatiak xedatzen duenez, hartzaileengatik edo eragin daitezkeen ondorengatik izapide hori egokituz jotzen delako. Bestalde, egokia litzateke elkarte profesionaleri eta halako instalakuntzek eragiten dieten erabiltzaileei galdetzeko izapidea orokorrean ezartzea eta ezarri nahi diren neurriei buruzko ekarpenak jasotzea.

Horri dagokionez, udal esparruan, udalek arautzeko duten ahalmena Arautegien eta Ordenantzen bidez bideratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen [7/1985 Legeko](#) 49. eta 70.2 artikuluetan xedatutako prozeduraren arabera. Tresna horiek izapidetzean interesa duten erabiltzaileei parte hartzeko bidea ematen die. Horrela, adierazi behar da toki ordenantzak onartzeko prozedurak berariaz aurreikusten duela jendaurrean erakusteko eta interesatuei entzuteko epe bat, baita onartutako araua behar bezala argitaratzea indarrean sartzeko. Horri dagokionez, ikusi dugu Bilboko Udalak gaiari buruzko berariazko ordenantza izapidetzea hautatu duela, eta Donostiako Udalak, aldiz, iragarri duela egungo Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazioaren Ordenantza aldatzeko aukera aztertzen ari dela.

Bestalde, berezitasun gisa aipa dezakegu foru administrazioek sustatutako arau teknikoari eta seinaleei buruzko proposamenekiko adostasunari buruz Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak egindako txostena behar dutela, haien edukiak



Euskal Herriko Errepide Plan Orokorriari eragiten dionean, arestiko atalean adierazi dugunez.

Bestalde, beste administrazioek emandako arauak aplikatzea hautatu duten edo hautatu nahi duten herri-administrazioei dagokienez, euren atxikipen hitzarmenak behar bezala argitaratu behar lituzkete ukitutako erabiltzaileek ezagut ditzaten.

Laburbilduz, gai honi buruz uste dugu, abiadura murriztaileen arauketak hartzen duen forma zein ere den, publikitate egokia eta, egokia balitz, ukitutako erabiltzaileen eta ordezkariak duten eta zuzenean zerikusia duten profesionalen elkarte edota taldeen parte hartzea bermatu behar liratekeela.

6. Eduki materiala

Eduki materialaren ikuspegitik, ezin da erakunde honen lana izan instalakuntza horiek izan behar dituzten arau teknikoak zehatza erabakitzea, baina, dauden arau teknikoak erreferentzia hartuta, dagokien arauketa garatzeko aipatu beharrezko zenbait alderdi adieraz dezakegu.

Arauketak kontuan izan beharko du helburu nagusia zirkulazio bideetan segurtasun handiagoa lortzea dela, ezarritako mugak ez betetzeagatik, gehiegizko abiadurak zati jakin bat darabilten erabiltzaileentzat, batez ere oinezkoentzat, arriskutsu bihurtzen duela antzeman ondoren. Helburua bidearen segurtasunari eutsi edo hura hobetzea dela bistatik galdu ezin dugunez gero, ordea, abiadura murriztaileak jartzeak ezin du inolaz ere eragin zirkulazioaren segurtasunaren berme txikiagoa. Hori dela-eta, dagokion arauketak behar diren neurriak xedatu behar ditu instalakuntza horiek guztiek zirkulazio bideetan segurtasuna bermatzeko helburu orokorra bete dezaten.

Administrazioek araudi propioz arautzen dituzten instalakuntza motak, kasu batzuetan, jasotzen duten izenagatik baino ez dira bereizten, eta interesgarria litzateke hori bateratzea interesa duen edonork aipatzen den instalakuntza mota ezagut dezan izenean. Zentzu horretan, Euskal Herriko Errepide Plan Orokorriak arautzen duen errepideen eremuari dagokionez, hiru lurralde historikoei eragiten dien heinean, interesgarria izan liteke, Errepide Plan Orokorriaren batzordearen baitan, adostasuna egotea bai instalakuntza horien izenak bateratzeko, bai aplikazio orokorrekoak izan litezkeen ezarpen eta diseinu irizpideetarako. Era berean, landu beharreko gaiaren arabera, batzorde horretan Euskal Autonomia Erkidegoko udal elkarterik esanguratsuenen ordezkariak ere parte har lezakete. Tokiko berezitasunen ikuspuntua eman lezakete eta, horrela, oinarrian adostutako arauketa ereduak, zirkulazio bide mota ororentzat benetan aplikagarriak, lor litezake.





Abiadura murriztaile motei dagokienez eta dagoen nahastearen eredu, ikusi dugu euren araudia duten administrazio guztiek honako izenez arautzen dutela oinezkoak igarotzeko eginkizuna betetzen duen instalakuntza mota bat:

- Oinezkoak igarotzeko eginkizuna betetzen duten zeharkako sekzio trapezoidaleko abiadura murriztaileak; haien sestra galtzada zoruaren apur bat gaintetik kokatzen da, ibilgailuek euren ibilbideari jarraitzeko sarbide aldapa txiki bat gainditu behar izateko moduan. Bai FOM Aginduak bai Bizkaiko Foru Aldundiak igotako oinezkoen pasabidea (IOP) esaten diote, eta Bilboko Udalak, aldiz, oinezkoen pasabide garaia (OPG)⁶.

Zentzu berean, euren araudia duten administrazio guztiek arautzen dute abiadura murrizteko beste instalakuntza bat, honako izenez:

- Asto bizkarreko abiadura murriztaileak. Segmentu zirkularreko zeharkako sekzioko gailuak dira⁷. Bilboko Udalak, bestalde, sakanguneak (asto bizkarra) deritze eta honela definitzen ditu: ibilgailuen abiadura mugatzeko galtzadari zeharka jartzen den oztopo artifizial konkortua.

Bestalde, udaleko hiri bideetarako behar den berariazko arauketaren adibide,⁸ Bilboko Udalak beste instalakuntza bat arautzen du, honako izenez:

- Europar kuxina⁹: erreitik kanpoko goragunea da, erdigunean, gurpilen arteko zabalera gailuaren neurria baino txikiagoa duten lau gurpildun ibilgailu arinen zirkulazio abiadura murrizteko, gurpil biko ibilgailuen edo autobusen ibilerari eragin gabe.

Testuinguru horretan, zenbait alderdi aipatuko ditugu, gidoi gisa, euren araudirik ez daukaten edota berraztertzea pentsatu duten administrazioek euren arauketarako aintzat hartu ahal izateko. Horrela, honako alderdiak aipa ditzakegu:

- Lehenbizi, uste dugu egokia dela administrazio bakoitzean dagoen egoera ebaluatzea eta instalatutako gailuen eta aplikagarritzat jotzen diren irizpideei egokitzeko mailaren inbentarioa egitea, bai dauden arau teknikoen arabera, bai instalakuntza bereziak behar dituzten ezaugarri berezien balorazioaren arabera, bai sortu duten gatazka mailaren arabera (istripuak, ondare erantzukizuneko erreklamazioak, bestelako kexak, etab.).

⁶ Bizkaiko Foru Aldundiaren arau teknikoen araberrako definizioa (2. araua). Antzera, FOM Aginduko 3. arauak eta Bilboko Udalaren udal Ordenantzako 8. artikulua.

⁷ FOMen arauen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren definizioa.

⁸ Donostiako Udalak emandako azalpena

⁹ Donostiako Udalak, berariazko arauketarik ez badauka ere, berlindar kuxina izena darabil.



- Antzemandako segurtasun arazoari, beste neurri konbentzionalekin konpondu ezinari eta zirkulazio bide bateko abiadura murrizteko instalakuntza egin beharri buruzko berariazko memoria (txosten teknikoa, proiektua edo antzekoa) egitea aurreikustea. Azterketa orokor horri esker, dagokion espedientean, erabakia hartzerakoan aintzat hartu diren alderdi guztiak jaso ahalko dira.
- Egoera bakoitzean ezarri beharreko instalakuntza mota, galarazpenak eta egiteko mugak hautatzeko irizpide orokorrak ezartzea, helburu orokorra bidearen segurtasuna hobetzea dela gogoan hartuta beti.
- Hartutako ezarpen irizpide orokorrek bidearen erabiltzaile mota (hiri garraioa, ibilgailu astunak, oinezkoak, etab.) kontuan hartuko dutela ebaztea, burutuko diren instalakuntzen segurtasunaren eta eraginkortasunaren arteko oreka puntua aurkitzeko xedez.
- Ezarri beharreko abiadura murriztaile mota edo burutzeko ezaugarri zehatzak erabakitzeko izapidean, neurriak ukitutako erabiltzaile edo profesional elkarteei entzun beharra baloratzea.
- Instalakuntza bakoitzak izan beharreko ezaugarriak arautzea, jarritako segurtasuneko murriztaileetan erabiltzaile guztiak segurtasunez sartzeari bermatzeko seinale bertikalei eta horizontalei dagokienez batez ere.
- Igotako oinezkoen pasabideak jartzeko diseinuak oinezko bideen jarraikortasuna ahalbidetuko duela ezartzea eta mugikortasun urria duten pertsonen joan-etorriak bermatzea, Irisgarritasuna Sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) eta hura garatzeko Dekretuaren arabera¹⁰.
- Sektoreko beste arau aplikagarriak, hala nola zaratari buruzkoa, aintzat hartzea¹¹.
- Ezarritako instalakuntzak arauketa berriari egokitzeko arrazoizko epe iragankorra ezartzea.
- Instalakuntza mota horiek ezarri aurretik edota ondoren, lehenagoko kanpainak eraginkorrak izan ez badira, administrazioak, eskumena duten gainontzeko administrazioekin koordinatuta, zirkulazio arauak eta dagozkien seinaleak bide segurtasunaren berme gisa errespetatzearen garrantziaz erabiltzaileak kontzientziatzeko neurriak sustatuko dituela erabakitzea.

Arestiko oharbideak ikusita, aztertutako gaien eskumena duten herri-administrazioei honako gomendio orokorra helarazten diegu:

¹⁰ [Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua](#), zeinen bidez hiri inguruneen, esparru publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen baitira.

¹¹ Zaratari buruzko [azaroaren 17ko 37/2003 Legea](#)



GOMENDIO OROKORRA

- 1 Oraindik egin ez duten herri-administrazioek arau dezatela, egokia deritzoten lege tresnaren bidez, euren eskumeneko zirkulazio bideetan abiadura murriztaileen instalakuntza edo, berriazko adierazpenaren bidez, beste herri-administrazioek indarrean dituzten arau teknikoei atxiki dakizkiela.
- 2 Edozein egoeratan, adostu dituzten edo, hala balitz, atxiki zaizkien arau teknikoei behar den publizitatea eman diezaietela, arauketak eragiten dien erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten.
- 3 Instalakuntza horien arauketan abiadura murriztaileak ezartzeko arauketa proposamena zuzenean eragindako erabiltzaileen eta profesional elkarteen ordezkariekin eztabaida ditzatela.
- 4 Administrazioen koordinazio printzipioari jarraituz, Errepide Plan Orokorraren batzordearen edo egokitzat jotzen den beste plataforma baten bidez, eta udal elkarteen ordezkarien parte hartzearekin, abiadura murrizteko instalakuntza bakoitzaren izen bateratuak eta autonomia erkidegoko herri-administrazio guzti edo gehienentzat komunak izan litezkeen diseinu eta ezarpen irizpideak susta daitezela.
- 5 Bideak arriskutsuak direla eta zirkulazio seinaleak errespetatzen ez direla ikusita, koordinatuta, kontzientziazio neurriak eta legea eta abiadura mugak betetzea sustatzeko beste neurri batzuk ezar daitezela, ahal den neurrian, halako instalakuntzen ugalketa saihesteko xedez.

